

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

OSOKO BILKURA • Ayuntamiento Pleno

Akta 2018ko Irailaren 25a

Acta 25 de Setiembre de 2018

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2018ko IRAILAK 25 / 25 - SETIEMBRE - 2018

TOKIA / LUGAR: UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 2018/09/25

HASIERA / INICIO: 17:00ETAN

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
 3. Alkateordea, Don Iker Oveja Sobrón jauna
 4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
 5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
 6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
- Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)

Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)

Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))

1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
- Don Mauricio Garcia Martin jauna

ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)


Don Francisco Garate Mintegui jauna

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES

Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Bilera irekita, 17:00ak direnean, Alkate-Presidentea, **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**, adierazten du: Aurreko astean, pleno areto honetan Zinegotzi izandako Juan Jose Agirre Barruetaña, Juanito Agirre, hil zen eta atzo, Bozeramaleen Batzordean erabaki genuen aho batez, **minutu bateko isilunea egitea**, beraz, gonbidatu egiten zaituztet zuek ere egitera.

Jarraian, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2018KO OTSAILAREN 27KO OHIKOA.

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2018ko otsailaren 27ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2018ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuraren ohiko akta.**

BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Alde batetik, aurreko plenorako, uztaileko plenorako, aurkeztutako sinaduren prozesuaren berri eman nahi dizuet.

- ✓ Prozesu hau nahiko zaila izaten da, sinadurak eta nortasunak kontrastatu egin behar dira, baina hurrenkera hauxe izango litzateke:
- ✓ Erregistro Orokorrean, uztailaren 16an, aurkeztu egin zen sinadura kopuru bat, hain zuzen ere, PERI Ferrocarril deritzonaren inguruko herri-galdeketa egiteko.

Abierta la sesión, siendo las 17:00 horas, la Alcaldesa-Presidenta, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**, manifiesta: La semana pasada, falleció Juan Jose Aguirre Barruetaña, Juanito Aguirre, quien fuera Concejal en este salón de plenos, y ayer decidimos por unanimidad en la Junta de Portavoces **guardar un minuto de silencio**. Por tanto, invito a todos ustedes a sumarse a este reconocimiento.

A continuación se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE 27 DE FEBRERO DE 2018.


DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 27 de Febrero de 2018.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **27 de Febrero de 2018.**

DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Por una parte, les quiero informar del proceso de recogida de firmas presentado en el pleno anterior, correspondiente al mes de julio.

- ✓ Se trata de un proceso bastante complejo, debido a que se deben contrastar las firmas y las identidades, pero el procedimiento ha sido el siguiente:
- ✓ El 16 de julio se presentó en el Registro General una determinada cantidad de firmas para reclamar la celebración de una consulta popular sobre el denominado PERI Ferrocarril.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

- ✓ Abuztuan Herritarren Arretarako Zerbitzuan aurkeztu ziren sinadura guztiak, banan-banan tekleatzeko eta datu base bat egin ahal izateko.
- ✓ Abuztuaren 30ean HAZek dokumentu informatikoa burutu zuen, eta irailaren hasierako astean, arlo informatikoan, nortasun agiriak filtratu ziren, adina kontrolatu zen, errolda ere bai, bikoiztuta dauden sinadurak kontrolatu egin behar dira eta; antza denez, badaude sinadura batzuk ezin direnak onartu.
- ✓ Arlo informatikoan ikusi diren akatsen ondorioz erabaki da arazoak daudela eta horregatik eskuz ari dira sinadura bakoitza aztertzen. Edozelan ere, herenegun sinadura gehiago aurkeztu ziren, beraz, horiek ere sartu behar dira zerrenda luze honetan kontrolak pasatu eta gero.

Bestalde, 2018ko Vueltari buruz, esan behar dut komentatu dela udal honek 25.000 euro eman dituela ez dakit zertarako, eta gustatuko litzaidake esatea zehatz-mehatz zertarako izan den. Izan dira 23.431 euro eta bideratu dira: LESA eraikina erabiltzeko eta garbiketa lanak egiteko, mahaian sare elektrikoa ezartzeko, telebistak alokatzeko, karretilla bat, aldi baterako komunak eta hesiak alokatzeko, bi toma elektriko legalizatzeke, bulego altzarietarako eta manparak jartzeko. Guztira 23.000 eurotik gora izan da.

Bestalde, dakidanez eztabaida sortuta dagoela, dagoeneko MTVk eta diputazioak udalerrin egingo duen kontzertua dela eta, esan beharra dago, gaur arte, konprometituta daukagun dirua 3.085 euro dela. Diru hau pabilioia ordaintzeko izango da, udala delako pabilioia alokatuko duena.

Gainerako gai guztiak eskuragai daude Idazkari-tza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.


- ✓ El mes de agosto se presentaron todas las firmas en el Servicio de Atención Ciudadana para teclearlas de manera individual y crear así una base de datos.
- ✓ El 30 de agosto, el Servicio de Atención Ciudadana creó un documento informático y, durante la primera semana de septiembre, el Departamento de Informática filtró los documentos de identidad, controlando la edad y el censo, con el objeto de controlar aquellas firmas que estén por duplicado. Tras el registro, todo apunta a que existen firmas no aptas para el proceso.
- ✓ Los errores detectados por el Departamento de Informática evidencian problemas en el proceso, por lo que están analizando todas las firmas de manera manual. En cualquier caso, antes de ayer se presentaron más firmas, por lo que deben ser incluidas en esta lista una vez pasados los controles pertinentes.

Por otra parte, con respecto de la Vuelta 2018, cabe destacar que este Ayuntamiento dará 25.000 euros con no sé muy bien qué objeto, y me gustaría que se detallara su destino. Han sido un total de 23.431 euros que se han destinado a los siguientes conceptos: para el uso y limpieza del edificio de LESA; para la instalación de la red eléctrica de las mesas; para el alquiler de las teles, de una carretilla, de los inodoros portátiles y de las vallas; para la legalización de dos tomas eléctricas; para el mobiliario de oficina y para la instalación de mamparas. Un total que supera los 23.000 euros.

Por otro lado, como sé que el debate ya está sobre la mesa, con objeto del concierto que se celebrará en Durango entre la MTV y la Diputación, debemos señalar que la cantidad comprometida para este concepto asciende de momento a 3.085,- euros, que se destinarán a pagar el pabellón, ya que será el Ayuntamiento que asumirá su alquiler.

El resto de los temas están a su disposición en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

HIRU.- BIDEZKOA BALITZ, 2019KO URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK HASIERA BATEAN ONARTZEA. (KONTU BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENAREN DUENA 2018KO IRAILAREN 19KOA).

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):

Nire proposamena da, azkeneko negoziazioak direla-eta eta hainbat kontu berri sartu izan direlako gaur bertan, bertan behera uztea. Eta akordio batera heldu ahal izateko proposatzen dizuet puntu hau erretiratzea. Horretarako bozketa egin beharra dago, beraz, bozkatuko dugu puntua erretiratzea:

Erretiratzearen alde:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Kontrako botoak: HAMAIIKA, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 1 Alderdi Popularra.
- Abstentzioak: BAT ERE EZ.

* Alkatesa Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):

Mantendu egiten da puntua eta aurrera egingo dugu.

Kontu Batzorde Bereziak, iragan irailaren 20an, irizpena egin zuen tokiko zergen kuadeaketaren gaineko espedienteari buruz eta prezio publikoen diru-bilketa eta ikusatzearen gainean, betiere, toki ogasunak arautzen dituen legearen 16 eta 17. artikuluek ezartzen dutena aintzat hartuta eta, halaber, kontuan hartuta honako lege-testuek ezarritakoa: uztailaren 4ko, 5/89 Foru Arauaren 15. artikulua eta hurrengoak eta toki araubide arautzen duten oinarrien legearen 49. artikulua, betiere, 2019. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko.

TRES.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2019. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 19 DE SETIEMBRE DE 2018).

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):

Vistas las últimas negociaciones, mi propuesta es posponer este punto, debido a que hemos tenido que incluir una serie de nuevas cuentas. Por lo que les propongo su retirada, para poder llegar a un acuerdo. Para ello, si les parece, vamos a votar la retirada de este punto:


A favor de retirar el punto:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Votos en contra: ONCE, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 1 del Partido Popular.
- Abstenciones: NINGUNA.

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):

Se mantiene este punto y continuaremos con el orden del día.

Visto el dictamen elaborado el pasado día 20 de Setiembre por la Comisión Especial de Cuentas, respecto al expediente de Tributos Locales, su gestión, recaudación e inspección y Precios Públicos, a tenor de lo dispuesto en los Artºs. 16 y 17 de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en concordancia con el Artº. 15 y ss. De la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio, de Hacienda Forales y, conforme lo establece el Artº. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, para la modificación de las Ordenanzas Fiscales de cara al ejercicio 2019.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* Kontu-hartzaile ordea **Velasco Perez andreak**: 2019ko Ordenantza Fiskalen zirriborroa 2018ko irailaren 3ko Kontu Batzorde Berezian aurkeztu ziren. Planteamendua izan zen 2018 urteko ordenantzako tarifak %1,1 igotzea. Zuzenketak aurkezteko epea irailaren 17ra arte luzatu zen. Irailaren 17, 18 eta 19an zuzenketak aurkeztu ziren eta irailaren 19ko Kontu Batzorde bereziak irizpena hartu zuen Osoko Bilkurara eramateko.

Herriaren Eskubideak osotasunerako emendakin bat aurkeztu zuen. Alderdi Popularrak bost zuzenketa partzial; Herriaren Eskubideak 8 zuzenketa partzial eta Euskal Herria Bilduk 7 zuzenketa partzial.

* **Garate Mintegui jaunak (PP)**: 2019rako ordenantza fiskalen eta prezio publikoen proposamen baten aurrean gaude, eta adierazten zaigun lehendabiziko kontua zera da, tasak eta zergak % 1,1 igoko direla.

Ez da berez diru-bilketan izandako hazkunde bat. Beharrezkotzat jotzen dugun hazkundera da, izan ere, udal-erakunde gisa eman beharra dauzkagun zerbitzuek (garbitasuna, argia, soldatak eta abar) gero eta prezio garestiagoak dituzte, denboraren eta urteen poderioz. Desadostasuna ez dago horrekin lotuta.

Baina, gure ustez, diru-bilketa bestela handitu behar litzateke, hala nola ondasun higiezin zerga ordaintzen duten jabeen kopuru handia goarekin, ibilgailuen gaineko zerga ordaintzen duten bizilagun kopuru handiagorekin, eta abarrekin. Eta ez zergak igota, gobernuan ditugun EAJk eta PSEk planteatzen duten moduan.

Herriaren Eskubideak osoko zuzenketa aurkeztu du, eta zerga-tasak ez igotzea defendatzen du. Horixe defendatzen dugu Alderdi Popularrean ere, dela aurreko aldietan, dela orain. Eta horixe bera dio gure zuzenketetako batek.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Interventora en funciones **Sra. Velasco Perez**: El borrador de las ordenanzas fiscales de 2019 se presentó en la Comisión Especial de Cuentas extraordinaria celebrada el 3 de septiembre de 2018. El planteamiento fue aplicar una subida generalizada del 1,1 % a las tarifas recogidas en las ordenanzas fiscales de 2018. El plazo para presentar las enmiendas finalizó el 17 de septiembre, y se presentaron los días 17, 18 y 19 del mismo mes. Tras lo cual, la Comisión Especial de Cuentas de 19 de septiembre emitió su dictamen para su traslado al pleno.


Herriaren Eskubidea presentó una enmienda a la totalidad. El Partido Popular, por su parte, realizó cinco enmiendas parciales, mientras que Herriaren Eskubidea y Euskal Herria Bildu presentaron 8 y 7 enmiendas parciales, respectivamente.

* Concejal **Sr. Garate Mintegui (PP)**: Nos encontramos ante una propuesta de OOFF y Precios públicos para 2019 que lo primero que nos informa es de una subida de los tipos para las tasas e impuestos del 1,1%.

No se trata de un incremento en la recaudación como tal, que vemos necesario porque los servicios que como Ayuntamiento estamos obligados a cumplir (servicios de limpieza, alumbrado, salarios, etc.) van teniendo con el paso del tiempo y de los años unos precios superiores. No es con eso el desacuerdo.

Pero se trataría, a nuestro entender, de aumentar la recaudación a través de mayor número de propietarios que paguen el IBI, mayor número de vecinos con un vehículo por el que paguen su impuesto de vehículos, y así sucesivamente. No subiendo los impuestos como nos plantean el PNV y el PSE, que nos gobiernan.

Tenemos una enmienda a la totalidad de Herriaren Eskubidea que defiende la no subida de los tipos. Es lo que venimos defendiendo desde el Partido Popular, tanto en ocasiones anteriores como ahora. Es lo que una de nuestras enmiendas precisamente dice.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Gure gainerako ekarpena honako hau da: ez aplikatzea bizitegi erabilerarako ondasunen zerga-tasa desberdindu zorigaiztoko hori katastro-balioa 180.000 € gainditzen duten ondasun higieizinei. Ados gaude gehiago daukanak gehiago ordaintzearekin; halere, guk defendatzen dugu irizpide hori zentzuz eta justiziaz aplikatu behar dela, eta 200.000 euroko katastro-balioa duenak ordain dezala 100.000 euroko balioa duenaren bikoitza.

Bi kasuetarako tasa bera ipinita, lortuko dugu, baina zerga-tasa areagotuekin, ez dago halakorik. Eta, irizpide bera oinarri hartuta, 100.000 euroko bi etxebizitza izan ditzakeenak –logikoki, ez da bietan biziko– 200.000 €-ko etxebizitza duen batek ordaintzen duena beste pagatuko du, baldin eta tasa bera aplikatzen badiogu eta ez baldin badugu sortzen % 50eko errekaru bat (errekargu hori ez baitiogu aplikatzen lehendabizikoari 200.000 €-ko etxebizitzagatik, txiste bat emango luke-eta, eta ez baikenuke ulertuko egongelan bazkaltzen ari denean ez korridorean edo logelan egotea).

Aldaketa bat proposatu genuen ibilgailuen zergarako, Eusko Jaurlaritzak historikotzat katalogatutako ibilgailuak salbuestearekin loturik, eta eskatzen dugu 25 urtetik gorako guztietara ere zabaltzea. Eta ulertzen dugu, halaber, % 90eko hobaria aplikatu beharko genukeela 5 plazako edo gehiago ibilgailu bakarrarentzat, baldin eta haren titulartasuna familia ugariko kide bati baldin badagokio.

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ordenantza fiskalak eta aurrekontua beharrezko erremintak dira Udalak eskaintzen dituen proiektuak mamitu ahal izateko, baita eskaintzen diren zerbitzu guztiak eskaintzeko ere. Azkeneko urteetan, buru-belarri jardun dugu ordenantzak ikuspegi sozialetik lantzen, eta hobia-riak aplikatu dira gure iritzian beharra zeukaten sektoreetara, hala nola merkataritzara, eta laguntza eskaini diegu egoera okerrenean zeuden pertsonen, langabetuen, esaterako...

Oraingo honetan, azkeneko unera arte itxaron dugu, eta, kasu honetan, EH Bildurekin negoziatzen saiatu gara, osoko bilkura hasi baino minutu batzuk lehenagora arte.


El resto de nuestras aportaciones son no aplicar el desastroso tipo diferenciado para bienes de uso residencial a aquellos que su valor catastral supere los 180.000,- €. Porque aun estando totalmente de acuerdo en que pague más el que más tiene, defendemos que se haga con criterio y con justicia; y quien tiene un valor catastral de 200.000,- euros que pague el doble que quien tiene un valor de 100.000,- euros.

Con el mismo tipo para ambos lo conseguimos, pero con un tipo diferenciado no. Y por el mismo criterio, quien pueda tener dos viviendas de 100.000 euros, y lógicamente no vivir en alguna de las dos, pagará lo mismo que quien tenga una de 200.000 € si les aplicamos el mismo tipo y no le incorporamos un recargo del 50% que no aplicamos al primero por la mitad de su vivienda de 200.000 € que vendría a ser un chiste y no entenderíamos que cuando está en el salón comiendo no está en el pasillo ni en el dormitorio.

Presentamos una modificación para el impuesto de vehículos en cuanto a la exención de vehículos catalogados históricos por Gobierno Vasco y pedimos que se haga extensiva a todos los de más de 25 años, así como entendemos que deberíamos aplicar una bonificación del 90% para un solo vehículo de 5 o más plazas en aquellos casos en los que la titularidad recaiga sobre un miembro de familia numerosa.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Las OOFF junto al presupuesto son las herramientas necesarias para poder llevar a cabo los diferentes proyectos que llevamos desde el Ayuntamiento así como los servicios que se dan. En los últimos años nos hemos centrado mucho en trabajar las ordenanzas desde una perspectiva social, aplicando bonificaciones a aquellos sectores que hemos considerado que lo necesitaban como puede ser el comercio, ayudando a las personas que peor lo tenían como desempleados y desempleadas...

En esta ocasión hemos esperado hasta el último momento y hemos intentado negociar, en este caso con EH Bildu, hasta unos minutos antes de empezar el pleno.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Une honetara iritsi ostean, azken urteotan buru-hauste handienak eman dizkigun puntuan aritu gara, ondasun higiezinaren gaineko zergaren gainean, alegia. Zerga horrek hainbat arazo eman ditu, katastro-balioespen berri hura egin zenetik. Gobernu-Taldean, beste balioespen bat egin dezatela bultzatuko dugu, edota, gutxienez, azter ditzatela akats nabarmenak ageri dituzten kasuak. Halaxe eskatuko diogu Foru Aldundiari.

Bigarrenik, ezarrita geratu ziren bi karga mota; hau da, karga arrunta eta areagotua, 180.000 eurotik gorako katastro-balioa duten etxebizitzetarako. Hona ekarri dugun proposamena 0,29 da. Azkeneko unera arte, 0,25era iristeko negoziatzen aritu gara. Ez da posible izan, EH Bilduk 0,22 nahi baitu. Ez gaude ados 0,22ra iristearekin, balioespen bat egin gabe; izan ere, baliteke Durangoko beste hainbat eremurik ere aldatu beharra eskatzea, eta baliteke eremu bakarrarekin egitea hori. Hain zuzen ere, balio txikiagoa duten etxebizitzek buruz ari naiz, haiei ere garestitu baitzaie ondasun higiezinaren gaineko zerga. Beste kasu batzuetan, kontrakoa gertatu da, eta merkatu egin zaie.

Horrekin zera esan nahi dugu, azken unera arte negoziatu dugula, 0,25 hori iristea nahi izan dugula, 180.000 eurotik gorako etxebizitzek kalterik izan ez dezaten; ez da posible izan, eta hari eusten jarraituko dugu. Gustatuko litzaiguke aurrera iristea. Berririo diogu: badira beste hainbat eremu, etxebizitza umilagoak, eta balioespen horren ondorioz ondasunen gaineko zerga garestitu zaientzat. Hori dela eta, behin eta berriz defendatuko dugu Foru Aldundiak egoera hori berririo azter dezala.

*** VARELA DORRIO JAUNAK (HERRIAREN ESKUBIDEA):**

Hasteko eta behin, esan nahiko genuke, informazioa zer datatan helarazi diguten kontuan izanda -ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda, adibidez, atzo arratsaldeko hiruretan jaso genuen-, zuzenketa berriak ekarri behar izan ditugula gaur hona, eta, ikusita ez dutela denbora luzatu nahi izan haiek azaltzeko esku hartu dezagun, atzo eskatu genuen moduan, barkamena eskatuko dizuet labur samar arituko naizelako.

Hasteko eta behin, gustatuko litzaidake alde aurretik aurkeztu genituen zuzenketei erantsitako zuzenketak azaltzea gainerako taldeei. Lehenda-

Llegados a este momento nos hemos centrado en lo que en los últimos años más problemas está dando y es el IBI; este impuesto que desde que se hizo esta nueva valoración catastral ha originado tantos problemas. Desde el Equipo de Gobierno vamos a impulsar que se haga una nueva valoración o, por lo menos, que se estudie aquellos casos en los que se vea claramente que hay un error, lo vamos a pedir así a Diputación.


En segundo lugar, quedaron establecidos dos tipos de gravamen, es decir, el normal y el agravado para aquellas viviendas que tienen un valor superior a los 180.000 euros catastrales. La propuesta que se ha traído aquí es la del 0,29; hasta el último momento hemos estado negociando para llegar a un 0,25. No ha sido posible porque EH Bildu quiere un 0,22. No estamos de acuerdo en llegar a un 0,22 sin que se haga una valoración, porque puede haber zonas de Durango que también necesiten que se modifiquen y puede que solo lo hagamos con una zona, y me estoy refiriendo a viviendas que tienen un menor valor pero que también han visto incrementado el IBI. En otros casos ha sido al revés y se ha visto rebajado.

Con esto queremos decir que hasta el último momento hemos negociado, hemos querido que salga adelante este 0,25 para que no se sientan agravados las viviendas de más de 180.000,- euros, no ha sido posible y lo vamos a seguir manteniendo y nos gustaría que prosperara. Insistimos en que hay otras zonas, viviendas más humildes que han visto también el IBI incrementado por esa valoración y por eso vamos a insistir en que se estudie desde Diputación.

*** CONCEJAL SR. VARELA DORRIO (HERRIAREN**

ESKUBIDEA): Queríamos empezar diciendo que debido a las fechas en que se nos ha trasladado parte de la información -por ejemplo el padrón del IBI que lo recibimos ayer a las tres de la tarde- nos hemos visto obligados a traer aquí nuevas enmiendas y ya que no se ha querido ampliar el tiempo para que podamos intervenir explicándolas, como así solicitamos ayer, les pido perdón porque voy a ser un poco breve.

En primer lugar, me gustaría entregar al resto de grupos las enmiendas que añadimos a las que ya habíamos presentado previamente y, en primer



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

bizi, osoko zuzenketa aurkeztu dugu. Zuzenketa horren oinarria zera da, iruditzen zaigula zergak eta tasak ez direla beste urte batez jarraian igo behar; izan ere, beste urte batez, EAJk eta PSEk zergak eta tasak igotzeko erabakia hartu dute, zergatik eta, batzordean haiek erabilitako hitzak ekarriko ditut, «*Bilbon hala egiten dutelako*».

Gobernu-Talde batek udalerriko errealtatean oinarrituta hartu behar ditu erabakiak, eta ez Bilbon erabakitzen dutenari begira. Beste urte batez, tasak eta zergak igotzeko planteamendua egiten dute, nahiz eta eros-ahalmenaren galera gertatu den beste behin ere: dagoeneko % 6ra iritsi da. Nahiz eta pentsiodunak borrokan eduki, nahiz eta langabezia-tasak handia izaten jarraitzen duen –batez ere gazteenen sektorean–, nahiz eta etxegabetzeak % 35 igo diren... Eta beste hainbat arrazoi ere aipatu genitzake. Gehiago kobratu nahi dute egunetik egunera okerrera egiten ari diren zerbitzuen truke, hala nola zaborren eta kale-garbitasunaren truke, jakinda azkeneko urteetan % 6,25eko igoera izan duela, nahiz eta antzeko gabeziekin edo are handiagoekin jarraitu zerbitzuotan, etengabeko kexak jasoz, zikinkeria, usainak, zaborraz gainezka dauden edukiontziak, eta gainerakoak direla eta...

Baina hori askotan errepikatu dugu, normala dela, zerbitzu hori 2005eko beharrezanetan oinarrituta baitago. Horrenbeste urteren ondoren, uste dugu ezinbestekoa dela eguneratze bat, baina ez zerbitzua hobetu aurretik kobratzea, baizik eta zerbitzua duina denean pagatzea. Gainera, berriro ere hautsi egin dituzte osoko bilkura honetan hartutako konpromisoak. Lehenik eta behin, balioen ponentzia berrikustea eskatzeko konpromisoa hautsi dute, batere zentzurik gabeko balio-ponentzia, errealtatetik erabat aldentutakoa, defendatzen duena hiritik kanpoko lurak garestiagoak direla hirigunekoak baino. Gaur hemen berriro ere entzun dugu defendatuko dutela balio-ponentzia hori berrikustea.


Sinetsiko nuke, baina orain urtebete, eta gobernu-taldeko bozeramaileetako baten hitzak ekarriko ditugu gogora, zera esan zuten: «*Beste ezer baino lehen, esan nahiko genuke gobernu-talde honetan harremanetan ipini garela Ogasuneko diputatuarekin, Durango izan dadin katas-tro-balioen berrikuspena landuko duen lehendabiziko udalerria. Uste dugu hainbat errore direla eta merkatu-prezioetara gehiago gerturatu behar*

lugar, hemos presentado una enmienda a la totalidad. Una enmienda que se basa en que creemos que no se deben subir los impuestos y las tasas otro año consecutivo porque otro año más el PNV y el PSE deciden subir estos impuestos y tasas, y cito sus propias palabras en la comisión, “*porque Bilbao así lo hace*”.

Un Equipo de Gobierno debe basar sus decisiones en la realidad de su municipio, y no de lo que decidan en Bilbao. Otro año más nos plantean subir las tasas, los precios y los impuestos pese a que se repite la pérdida de poder adquisitivo, que llega ya al 6%; pese hasta que tenemos a los y las pensionistas en lucha; pese a que el desempleo sigue siendo alto, sobre todo en el sector de los y las más jóvenes; pese a que los desahucios han subido un 35% y podríamos citar otras muchas causas. Quieren cobrar más por servicios que empeoran cada día como el de basuras y limpieza viaria pese a que ya han subido un 6,25% los últimos dos años ya que este servicio sigue con las mismas o más carencias recibiendo constantemente quejas de suciedad, de olores, de contenedores llenos con basura a su alrededor...

Pero esto hemos repetido muchas veces que es normal porque es un servicio que está basado en un servicio que está basado en las necesidades de 2005. Después de tantos años, creemos que es necesario una actualización, pero no que haya que cobrar antes de mejorar el servicio, cobraremos cuando el servicio sea digno. Además, rompen nuevamente los compromisos que han asumido en este pleno. En primer lugar, rompen con el compromiso de solicitar la revisión de la ponencia de valores, una ponencia de valores sin sentido alguno, muy alejada a la realidad y que defiende que el terreno en la periferia sea más caro que en el centro. Escuchábamos hoy aquí que vuelven a decirnos que van a defender la revisión de esta ponencia de valores.

Me lo creería si no fuera porque hace un año, y cito las palabras textuales de una de las portavoces del Equipo de Gobierno, dijo: “*Antes de nada queremos decir que desde el equipo de gobierno nos hemos puesto en contacto con el diputado de Hacienda para que Durango sea el primer municipio donde se trabaje la revisión de los valores catastrales. Creemos que hay errores que*



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

dela, eta Durangotik hasi behar dela». Bada, gaur egun, zain gaude gobernu-talde honek beharrezko neurriak har ditzan, eta berriro ere esango dut, beharrezko neurri guztiak har ditzan, Foru Aldundiari zera eskatzeko, balioen ponentzia duina, erreala eta bidezkoa.

Osoko bilkura honetan, era berean, beste konpromiso bat ere hartu zen; alegia, ondasunen gaineko zerga-tasa areagotuak eragindako etxebizitzetxei –euren kudeaketa txarren ondorioz– konponbide bat ematea. 2016an, proposamen adostu bat aurkeztu genuen, ondasun higiezin zerga-tasa areagotuak eragindako etxebizitzetxei ordezkarietara; eta eragindakoek zein guk pentsatzen genuen 0,29ko proposamena zela egokia. Gobernu-taldeak adierazi zuen proposamena Kleenex bat zela, irreala eta baliorik gabea. Halere, badirudi, errealista izateaz gain, egokitua ere bazela, eta hurrengo urtean hura erabiltzera ausartu ziren. Baina, zoritxarrez, kaltea ordurako eginda zegoen, gehiegizko dirua kobratuta zegoen, eta, hori dela eta, guk beste proposamen bat ekarri dugu hona, handitutako OHZ hori 0,22'5ekoa izatea, iruditzen baitzaigu ez dela diru-bilketa murriztea, baizik eta zuzen kobratu ez dena itzultzea.

Gure Taldeak atzo arratsaldeko hiruretan jaso zituen katastroko datuak, eta harrigarria iruditzen zaigu gaur hona proposamenik ez ekarri izana gai hau konpontzeko; izan ere, guk atzo arratsaldeko hiruretatik hona izan dugu astirik bat prestatzeko. Ez da horren konplexua, borondatea izanez gero.


Azkenik, ondasun higiezin gaineko zergen diru-bilketaren hazkundera justifikatu zenuten, aginduz diru-laguntzak emango dizkiezuela zerga-igoerari aurre egiteko zailtasunak dituztenei; hain zuzen ere, hona ekarri eta onartu zenuten balio-ponentzia kaskarrak igotako zergak ordaintzen laguntzeko. PSEko Bozeramaileak honako hau adierazi zuen: «Berriro ere diogu, konpromisoa dugu erasan handienak izan dituzten auzoei laguntzeko, katastroaren balioespenak kalte handia egin baitiote». Badakigu 2017an 200.000 euro baino gehiago bildu zirela, eta gaur hona ekarri duzuen 2019ko proposamena 2016n baino 345.000 euro gehiago biltzeko dela. Eta oraindik ere ez da zehaztu ezer, proportziorik gabeko OHZ ordaintzen jarraitzen duten familiei laguntzeko, zeinak egoera ekonomiko konplexu samarrean baitaude.

se deben de acercar más al precio del mercado y que se tiene que empezar por Durango». Pues a día de hoy, seguimos esperando a que este Equipo de Gobierno tome las medidas que sean necesarias, e insisto, todas las medidas que sean necesarias para exigir a la Diputación una ponencia de valores digna, real y justa.

También se comprometieron en este pleno a dar una solución a las viviendas afectadas por su propia mala gestión del IBI incrementado. En 2016 presentamos un propuesta consensuada con la representación de viviendas afectadas por este IBI incrementado; una propuesta de 0,29 en la que tanto afectados como nosotros creíamos que era ajustada. Desde el Equipo de Gobierno tacharon la propuesta de kleenex, irreal y sin valor. Sin embargo parece que no sólo era realista sino que era ajustada, y se atrevieron a utilizarla al año siguiente. Pero, desgraciadamente, el daño ya estaba hecho, se había cobrado un dinero de más, injustamente cobrado, y por eso nosotros traemos aquí una propuesta de poner el IBI incrementado en el 0,22'5 porque creemos que no es una reducción de la recaudación sino que es una devolución de lo que no se ha cobrado correctamente.

Nuestro Grupo recibió ayer a las tres de la tarde los datos del catastro, y nos sorprende que no nos hayan traído ninguna propuesta para solucionar este tema cuando nosotros desde ayer a las tres de la tarde a hoy ya tenemos una creada. No es tan complicado si hay voluntad.

Por último, justificaron la subida en la recaudación del IBI para dar ayudas a las familias que tienen dificultades para hacer frente a la subida del impuesto por la mala ponencia de valores que trajeron y que aprobaron. La Portavoz del PSE dijo literalmente: *“Insistir en que hay un compromiso para ayudar a aquellos barrios que están muy perjudicados porque la valoración catastral les ha hecho mucho daño”*. Sabemos que en 2017 se recaudaron más de 200.000 euros, que la propuesta que traen hoy para 2019 es de recaudar 345.000 euros más que en 2016, y que aún no se ha concretado absolutamente nada para dar solución a estas familias que siguen pagando un IBI desproporcionado y que están en una situación económica un poco complicada.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Bestalde, EAJren Bozeramaileak zera zioen iaz: «*Eta EAJk, zentzu horretan, bere hitza bete egiten du beti*». Beste urtebete igaro da, eta katastro-balioak berrikusi gabe jarraitzen dugu, areagotutako OHZren arazoari konponbide bat topatu gabe jarraitzen dugu –jakinda eurek ere aitortu dutela onartutako 0,35 hori sorrazaz zuela; igoera hori, gainera, eratu zen ez zelako entzun nahi izan bizilagunekin adostuta ekarri genuen proposamena-. Era berean, laguntzarik gabe jarraitzen dugu bitarteko gutxien dituzten familientzat, eta hemen esan nahiko genuke gaur, konpromisoa hartzen dugula hurrengo batzordean laguntza-proposamen bat aurkezteko, egoera ekonomiko konplexuan dauden familiei OHZ ordaintzen laguntzeko.

Gure aldetik, gustatuko litzaiyuke ekarri ditugun proposamenak azaltzea.

Hainbat proposamen aurkeztuko ditugu, gehien kutsatzen duten autoei eta ziklomotorrei zergak igotzeko, eta, hala, gutxiago kutsatzen dutenei jaitsi ahal izateko, baita ibilgailu elektrikoei hobariak emateko ere. Berriro ere, aire-kalitate duina lortzeko lanean jarraitzeko neurriak dira.

Proposamen bat aurkeztu genuen, banketxeek gehiago ordain dezaten kutxazain automatikoen-gatik, diru-bilketaren alorrean jarduten duten langileekin aztertuta eta haien oniritzi juridikoarekin. Proposamen bat ekarri dugu, halaber, hornidura-konpainia handiek bide publikoa, arketak, erregistro-kaxak eta abar okupatzeagatik ordain dezaten, eta, hala, pertsonen zergak jaisteko, eta ez enpresa handiei.

Proposatzen dugu, era berean, deskontuak aplikatzea bitarteko gutxien dituzten pertsonen hainbat alorrean, hala nola Durango Kirolak, zaborren, Euskaltegiaren, musika-eskolaren eta tankerakoen zergetan, tasetan edota prezioetan. Hobari-aula bat dakargu, hilaren amaieran estuago ibiltzen denak hobariak izan ditzan zerbitzu publikoetan.

Halaber, hobariak dakartzagu gutxiago ordaindu behar izateko enplegu berri bat sortzen denean. Hobari horien artean, zera nabarmenduko genuke, familientzako prestatu duguna, pertsona kopuruaren eta diru-sarreraren arabera, Uda Topera udalekuei begira. Ezin dugu zerbitzu hori negozio

Por su parte, la Portavoz del PNV decía el año pasado: “*Eta EAJk, zentzu horretan, bere hitza bete egiten du beti*” Ha pasado otro año y seguimos sin la revisión de valores catastrales, seguimos sin solución para el problema del IBI incrementado que hasta ellos mismos han reconocido que generó ese 0,35 que aprobaron y que se creó al no querer escuchar la propuesta que traíamos con los vecinos. También seguimos sin las ayudas para las familias con menos recursos y queríamos decir aquí que nos comprometemos hoy en este pleno a llevar a la próxima comisión correspondiente una propuesta para generar ayudas para pagar el IBI para las familias con una situación económica complicada.


Por nuestra parte, nos gustaría explicar las propuestas que hemos traído.

Presentamos propuestas para subir los impuestos a los coches y motocicletas que más contaminan para poder bajar a los vehículos que menos contaminan además de subir la bonificación de los coches eléctricos. Nuevamente son medidas para seguir apoyando que tengamos una calidad del aire digna.

Presentamos una propuesta para que los bancos paguen más por sus cajeros automáticos, estudiada con personal que trabaja en recaudación y que tiene su visto bueno jurídico. Una propuesta para que las grandes compañías de suministro paguen por la ocupación de la vía pública, arquetas, cajas de registro etc. para poder bajar los impuestos a las personas, y no a las grandes empresas.

Proponemos incluir descuentos en los impuestos, tasas o precios de basuras, Durango Kirolak, Euskaltegi, Escuela de Música... para las familias con menos recursos. Tenemos una tabla de bonificaciones para que quien esté más justo a fin de mes tenga bonificaciones en los servicios públicos.

También traemos bonificaciones para que se pague menos cuando se genera nuevo empleo. En estas bonificaciones, queremos destacar que traemos una tabla de bonificaciones para las familias en función del número de personas y los ingresos para los campamentos de verano Uda Topera. No podemos seguir gestionando este



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

bat izango balitz bezala kudeatzen jarraitu, neska-mutilentzako zerbitzu bat da, eta guztiek dute eskubidea udaleku horietan parte hartzeko. Plazak ugaritzeaz gain, hobariak ere sortu behar dira, bitarteko gutxiago dituzten familiek ez deza-ten erabaki behar izan bi aukeraren artean: edo seme-alabei jaten eman, edo udalekuetara bidali. Bermatu behar dugu neska-mutil guztiek izan behar dutela aukera udalekuoz gozatzeko.

Azkenik, nabarmendu nahiko nuke hainbat neurri transbertsal proposatu ditugula berdintasunaren alorrean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei hobari bereziak eskaintzeko.

* **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu):** Lehenengo eta behin parkamena eskatu behar dugu atzerapenagatik. Barkamena eskatu nahi dugu atzerapenagatik; izan ere, alkate andreak esan duen moduan, azkeneko unera arte negoziatzen jardun dugu, nahiz eta egiaztatu ahal izan den, lehenda-bizi, euren proposamenak erretiratzea eskatu dutela. Horren aurka egin dugu, ez baitauka inolako zentzurik ordenantza fiskal batzuk aurkezteak, ondoren erretiratzeko, esanez hainbat zuzenketa partzial aurkeztu ditugula azkeneko momentuan.

Ez ditugu ordenantza fiskalok defendatuko, ez baitira gureak; haietan % 1,1eko hazkundera finkatzen baitute, «Bilbon bezala» delarik azalpen handiena. Zergetan eta tasetan % 1,1eko hazkundera aplikatzea mundu guztia berdindatzea da, eta, hori, Durango ikusteko eta eraikitzeko daukagun moduaren arabera, ez da batere bidezkoa.

Gure ustez, hainbat zuzenketa partzialez gain, batez ere negoziazioaren puntua zera izan da, ondasun higiezin zergaren gaineko auzia. Hori hala, OHZri dagokionez, bi zati daude. Guk aitortu dugu gure erruaren zatia, ez baikenituen datuak zuzen jaso, ez zen landu gai hori ez maila teknikoan, ez politikoan; hori dela eta, akats bat egin genuen, eta garai hartan aitortu genuen haren errua. Oraindik ere aitortzen dugu, eta, harrezkero, lanean jarraitu dugu hazkunde-tasa horrek eragindako familiekin, eta 2017rako, 0,35'5 onartu zen 180.000 euro baino katastrobalio handiagoa duten etxebizitzetarako.


servicio como un negocio, es un servicio público para los niños y las niñas y todos ellos tienen derecho a participar en estos campamentos. No solo hay que aumentar las plazas sino que además hay que crear bonificaciones para que las familias con menos recursos no tengan que decidir si dan de comer a sus hijos o los mandan a estos campamentos. Tenemos que asegurar que todos los niños y niñas puedan disfrutar de estos campamentos.

Por último, queríamos destacar que hemos propuesto una serie de medidas transversales en materia de igualdad con bonificaciones especiales para mujeres víctimas de la violencia machista.

* **Concejal Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu):** En primer lugar, debemos pedir perdón por el retraso. Queremos pedir disculpas por el retraso ya que, como ha dicho la alcaldesa, hasta el último momento se ha estado negociando, si bien se ha podido comprobar que en primer lugar han pedido la retirada de sus propias enmiendas a lo cual nos hemos posicionado en contra porque no tiene ningún sentido presentar unas ordenanzas fiscales para venir a retirarlas con la excusa que hemos presentado algunas enmiendas parciales en el último momento.

No vamos a defender estas OOFF porque no son nuestras OOFF, en las cuales se fija el incremento del 1,1% sin mayor explicación que *“como en Bilbao”*. Un incremento del 1,1% en impuestos y tasas es tratar a todo el mundo por igual y eso, a nuestro modo de ver y construir Durango, no es nada justo.

Para nosotros, además de una serie de enmiendas parciales, principalmente el punto de la negociación ha estado centrado en el tema del IBI. Hay dos partes con respecto al IBI. Nosotros entonamos el mea culpa gracias a que no tuvimos los datos correctamente, no se trabajó este tema ni a nivel técnico ni político; debido a esto cometimos un error, en su día entonamos el mea culpa, lo seguimos reconociendo y desde entonces hemos venido trabajando con las familias agraviadas por este tipo incremental que para el año 2017 se aprobó un 0,35'5 a las viviendas mayores de 180.000 euros.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Gaur egun, gai horrekin lotuta, gure proposamena zera da, konpentsatzea; izan ere, pertsona horiek etorri dira udal honetara, batzordeetan izan dira, osoko bilkuran ere bai, eta administrazioarekiko auzi-errekurtso bat ere ipini zuten auzi hori jorratzeko; errekurtso hori erretiratu zuten, korporazio honek eta batez ere gobernu-taldeak esan zientetik euren erreklamazioei erantzungo zitzaizela, landuko zutela eta aurkeztuko zela gai hori konpentsatuko zuen zer bait. Baina ez da hala izan. Ez zaie deitu, ez zaie entzun, eta ez dute ezer jakin nahi izan, eta, horrez gain, hai-zeak eraman ditu esandako hitz haiek guztiak. Eta, osatzeko, 0,29 aurkeztu duzue ondasun higiezinaren zergen auzirako 2019rako. Guk 0,225 aurkeztu dugu, garai hartan izandako hazkundearen konpentsatzeko asmoarekin; kontua zera da, garai hartan gehiegi kobratu zena itzultzea.

Horrez gainera, balioen ponentziaren auzia ere eskatzen eta negoziatzen aritu ginen. Aurretik beste kide bati aipatu diodan moduan, Durangok izan behar zuen lehendabiziko udalerria balioen ponentzia berrikusten, eta, batzordean galdetu genuenean, erantzuna zera izan zen: «Foru Aldundiak ezezkoa erantzun digu», eta kito. 3/2016 Foru Arauaren 28. artikulua baimentzen dio Foru Aldundiari ofizioz, edota dagokion tokierakundeak hala eskatuta, balio-ponentziaren berrikuspenari ekitea; izan ere, gertaerak izan dira areagotutako zerga-tasarekin eta, horrez gain, udalerrirako honetako familia ugari zerga-karga handia duelako, balioen txosten horren ondorioz, gehiegi ordaintzen ari baitira.

Sobera ordaintzen dute Aramotz, San Fausto, Muruetatorre, Landako, Alde Zaharra eta tankera horretako auzotarrek... Ezkurdik baino gehiago, San Rokeko txaletek baino gehiago, Galtzaretak baino ere bai, eta ez dauka zentzurik; hemen ez dira herritarrek defendatzen, hemen ez da defendatzen errealitatearen arabera gehiago ordaintzea eta ez zaio inori informaziorik ematen. Zer-nola-koa izan da balioen ponentzia?


Ondotxo dakizue zerga-tasa areagotuaren auziarekin jardun duzuen familiok, Foru Aldundira jo duzuenok; etxebizitzaren salerosketa pil-pilean zegoen garaian, guztia neurritik kanpoko prezioetan saltzen zenean finkatu ziren prezioak, krisiaren aurretik, alegia. Hori dela eta, San Fausto edo Aramotzeko bizilagunek % 16 gehiago ordaintzen dute OHZ metro koadroko, Ezkurdiko bizila-

A día de hoy, con respecto a este tema, nuestra propuesta era compensar; porque estas personas han venido a este Ayuntamiento, han estado en las comisiones, han estado en este pleno, incluso metieron un recurso contencioso-administrativo para parar este tema, retiraron ese recurso porque desde esta corporación y sobre todo desde el equipo de gobierno se les dijo que se iban a atender sus reclamaciones y que lo iban a trabajar y que se iba a presentar algo que compensase este tema y no ha sido así. No solo no les han llamado, ni escuchado, ni han querido saber nada de ustedes sino que, de aquello que dijeron las palabras se las llevó el viento, total que presentan un 0,29 para el tema el IBI en 2019. Nosotros hemos presentado el 0,225 en compensación por ese incremento que hubo en su día, no se trata más que de devolver lo que se cobró de más.

Además de esto, también estábamos exigiendo y negociando el tema de la ponencia de valores. Como ha comentado anteriormente otro compañero, Durango iba a ser la primera en revisar la ponencia de valores y cuando lo preguntamos en comisión la respuesta fue *“la Diputación nos ha dicho que no”*, y ya está. La Norma Foral 3/2016 en su artículo 28 permite de oficio a la Diputación o a instancia de la entidad local correspondiente que se inicie la revisión de la ponencia de valores, porque se dan casuísticas no solo por el tema agravado sino un que un montón de familias de este municipio siguen teniendo una serie de gravamen porque están pagando de más por esa ponencia de valores.

Pagan de más vecinas y vecinos de Aramotz, San Fausto, Muruetatorre, Landako, Casco Viejo... más que Ezkurdi, más que chalets de San Roke, más que Galtzaretak, y no tiene sentido; aquí ni se defiende a los vecinos ni se defiende que se pague más acorde a la realidad, ni se informa a nadie. ¿Cómo ha sido la ponencia de valores?

Las familias que habéis estado con el tema del tipo agravado que habéis ido a la Diputación lo sabéis bien, en el momento más álgido de la venta de viviendas donde todo se vendía a unos precios desorbitados, en ese momento, fijaron los precios, antes de la crisis. Por eso personas de San Fausto o Aramotz pagan un 16% más el metro cuadrado de IBI que personas de Ezkurdi;



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

gunen aldean; Tabirakoek baino % 44 gehiago; Ibaizabal edo Andra Marikoek baino % 34 gehiago.

Eta hori konpondu liteke, eta orain aspalditxo konpondu beharrekoa zen, gainera. Eta orain esaten dute gauzen lehentasuna zera dela, bali-oen ponentziaren kontua konpondu behar dugula. Izan dute denborarik.

* 4. Alkateordea Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV): Barkamena eskatu beharrean gaude, osoko bilkura berandu egiteagatik; egia da saiatu garela akordioak lortzen, baina ez da posible izan.

Lehenik eta behin, esango nioke PPren Bozera-maileari ez diodala ulertu igoeren alde dauden ala ez; izan ere, hasieran esan dute ez daudela igoeren alde, baina hori ez da hala. Ondoren ulertu dut: nahi dute etxebizitza hutsen karga erretiratzeara, OHZ aldatzea, herritarren aldetik diru kopuru bera biltzen jarraitzeko. Inolako zentzurik gabeko azalpenak eta argudioak; bistan da ez duela busti nahi. Ondo dakigu Espainiako Estatuan gobernatzean nahi dutena egiten dutela, baita BEZa igo ere, eta, ondoren, hemen ez dira gauza diskurtso populista bat egiteko ere, tasak izoztea argudiatzeko.

Herriaren Eskubideari esango nioke ez dudala ulertzen haien jarrera; izan ere, bere kasketarekin etorri da hona, esanez izan dela denbora zenbakiak edo azterketak egiteko, baina gaur proposatu zaizue ordenantza fiskalen auzia gai-zerrendatik atzeratzea, ez gure irudia zurtzeko, baizik eta denbora gehiago izateko, eta guztiok ikusi dugu kontrako botoa eman duzuela.

Era berean, gogorarazi nahi dizuet oso ondo dagoela batzordean edo osoko bilkuran botatzen diren esaldiak hitzez hitz ekartzea, baina esan ditzagun guztiak, baita norberak botatzen dituenak ere. Izan ere, gogoan dut nire hitzak zein izan ziren: zuk zeuk beste zinegotzi bati egindako proposamenari erantzunez izan ziren, azkeneko unean egindakoa omen zen proposamen hura, mukizapi-proposamen bat. Ondorioz, zera pentsatzen dut nik, azkeneko unean egindako proposamen bat mukizapi-proposamena baldin bada, azkeneko orduan egindako beste bat ere lasai asko izan litekeela Kleenex proposamen bat.

de Tabira un 44% más; el barrio de Ibaizabal o Andra Mari un 34% más.


Y todo esto se puede arreglar y se podía haber arreglado hace tiempo, y ahora vienen diciendo que la prioridad de las cosas es que vamos a arreglar el tema de la ponencia de valores. Tiempo han tenido.

* 4ª Tnte. de Alcalde Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV): Tenemos que pedir disculpas por la tardanza del pleno; es cierto que hemos estado intentando llegar a acuerdos, pero no lo hemos conseguido.

